



# GAU BELTZA

## PRESTA ZAITEZ URRIAREN 31N LAUDIOKO GAU BELTZA OSPATZEKO!

URRIAREN 21EAN

*18:00etan Ipuin kontalaria Kirikiñoren basoan*

URRIAREN 27AN

*18:00etan Kalabaza hustuketa Lamuza parkean*

URRIAREN 29AN

*17:30ean Gaur beltzerako mozorro tailerra  
Sorgin Zapatuan Lezeaga aretoan*

URRIAREN 31N

*17:30 GIROTZEA Lamuza parkean (eguraldi txarra egitekotan Aldai Plazan)*

*18:30 BELDURREZKO IBILBIDEA*

*Lamuza parketik kantu eskearen bitartez "altxorren bila" moduko bat.  
Beldurrezko ibilbidean parte hartzeko, familian zein lagun artean, al-  
dez aurretik izena eman beharko da ondorengo galdetegia urriaren 26a baino  
lehenago betez:*

**IZENA EMAN** 

[https://labur.eus/gaubeltza\\_laudio](https://labur.eus/gaubeltza_laudio)

*19:15 AMAIERAKO DANTZA neguari ongi etorria Aldai Plazan*

*19:30 BI HOTSAK abesbatza eta ITXARKUNDIA dantza taldearen  
EMANALDIA Aldai Plazan*

*20:30 TXOKOLATADA Aldai Plazan*

*Jarraian KALEJIRA herrigunetik BI HOTSAK abesbatzarekin*



# GAU BELTZA

## BELDURRAK PIZTU, ILUNTASUNA BIZI!

*Urriak 31 betidanik izan da gau berezia. Europa osoan gau hau modu berezian bizitzeko hainbat istorio eta usadio daude eta Euskal Herrian ere hala ospatu izan da “Gau beltza”.*

*Jendartean gero eta hedatuago dago Halloween jaia. Ospakizun hau Estatu Batuetakoa dela uste badugu ere, Eskoziara joan behar dugu hitzaren jatorriaren bila. Ingeleseko “All Hallows Even” hitzetatik dator. Azken esaldi honek santu guztien gauari egiten dio erreferentzia. Tradizioaren jatorria begiratzeko aldiz, Irlandara jo beharko genuke, gau horretan zeltek udari agur esaten zioten eta neguari ongi etorria eman.*

*Eredu angloxajoniarreko “Halloween” ohitura gureganatu dugu eta gaur egun haur, gazte zein familiak mozorratuta goxokiak eskatzen ikustea ohitura bihurtu da.*

*Baina zergatik ez dugu bertakoa berreskuratzen?*

*Jaiek egunerokotasunarekin apurtu eta ohiturak berreskuratzeko zein egunerokotasunera moldatzeko aukera ematen digute. Ehunka lekukotzek adierazten duten bezala, Euskal Herrian eta Aiaraldean ere, domu santu bezpera aspaldi ospatu izan da.*

*Ospakizuna hiru aldagai nagusiren bueltan egituratzen zen;*

- Alde batetik, kalabaza eta arbien erabilpena, hustu eta kandlekin apainduta, kale eta baserri-bideetan jartzea.*
- Bestetik etxeko trapu zaharrek mozorratzea, nork bere burua estali eta, anonimotasuna eskuratzeko, herritarren artean beldurra hedatzea.*
- Eta azkenik, kantu-eskean ibiltzea etxez-etxe, jakiak eta goxokiak eskatuz.*

*Gau beltzarekin erritu ezberdinak ezagutu izan dira. Neguari ongi etorria emateko baliatzen da. Neguak, urtearen heriotzak, uzta bilketak, hildako senideen oroimenak... barrura begirako ariketan jartzen gaitu. Bestalde, iluntasunak eta heriotzaren gaiak elkarri beldurtuz jolasean aritzeko parada ematen digu.*

*Gurean ere badira pasarteak, kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argiztatuta jartzen zirenekoak; bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimek bidea erakusteko jarriak. Erritual ugari mantendu dituen herria da gurea. Baina beste asko urteetan zehar galtzen joan dira, egiten zirenaren ezagutza ere ia galtzeraino. Horietako batzuk berreskuratu eta berriak sortzeko ahaleginean, GAU BELTZA jai herrikoi bihurtzeko asmoz egitarau oparoa osatu dugu sarean eta euskara ardatz. Antzinako testigantza eta bizipenak kontuan hartuta, guretik nahi dugu Gau Beltza ospatu.*

*Aiaraldea Ekintzen faktoria, Basalarrina, Berbalagun, Bi Hotsak abesbatza, Itxarkundia dantza taldea, Kirikino aisialdi taldea, Kokoriko, La Milagrosa ikastetxeko guraso elkarteak, Lamuza eskolako guraso elkarteak, Latorro ikastetxeko guraso elkarteak, Sorginlarren eta Laudio Ikastolak ondorengo egitarau oparoan parte hartzera animatzen zaituztegu.*